

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak ekin beharreko ekintza garrantzitsuenak negozio-ereduak funtziona dezan honako hauek dira:

1. Plangintzatu, helburu batzuk ezarri eta horiek lortzeko estrategiak zehaztea, enpresaren politikak zehaztea eta erabakiak hartzeko irizpideak finkatzea, beti ere enpresaren helburuak lortzeko xedearekin. Hau da, proiektuaren helburuak finkatu eta horiek lortzeko baliabideak zehaztu. Era berean lehia abantaila zehaztu behar dugu lehiakideen aldean posizio hobea lortzeko, hura sendotzeko eta kontsumitzaileak gurera erakartzeko. Horrela abantaila handiena lortuz.
Horretarako, gure helburuak honako hauek izango dira: kotxe elektrikoak dituzten jendeari erraztasunak ematea honen erabilera bultzatuz eta ditu etekina ateratzea. Helburu horiek lortzeko ondoren, enpresa kideak bildu egingo gara baliabideak, estrategiak eta lehia abantaila hautatzeko. Segidan, baliabideak (kargadoreak eta elektrizitatea) lortzeko hornitzaileekin (Volkswagen eta Ibedrola) harremanetan jarriko gara.
2. Egitura bat diseinatzea, hau da, lana kudeatu eta eta langileen artean banatu. Ongi zehaztea enpresako kide bakoitzak burutuko dituen zereginak, kideen erantzunkizunak eta aginte-maila. Horretaz gain, enpresako funtzionamendu-arlo guztien artean sortzen diren harremanak eta zereginak ordenatzea.
Horretarako, sailetan banatuko gara funtzioaren arabera, hau da, jendearekin harremanetan egoteko saila egongo da batetik, bestetik kargadoreak non ea nola ipini adostuko duten ingeniariak eta bestalde kargadoreak ipintzen arituko diren langileak. Sail horietan bestalde, eredu funtzionala erabiliko dugu, hau da, langileak beren espezializaziora dedikatuko dira.
3. Behin bakoitzak zer egin behar duen jakinda, martxan jarriko gara gure aliantzekin komunikazioan jarritz: kargadoreak eta elektrizitatea lortu behar ditugu. Horrenbestez, komunikazio saila *Volkswagen*ekin harremanetan jarriko dira kargadoreak lortzeko eta bestetik *Ibedrola*ekin elektrizitatea lortzeko. Hauekin prezio merkeena lortzen saiatuko gara guk ahalik eta marjin handiena lortzeko.
4. Baliabideak lortzen ditugunean, kargadoreak ipiniko ditugun hiriko udaletxearekin harremanetan jarri beharko gara baimenak eskuratzeko. Legearekiko erantzukizunaz jardunez. Horrenbestez, Donostiako alkatearekin harremanetan jarri beharko gara eta baimena eskatu beharko diogu gure proiektua aurrera eramateko, zertan datzan eta nola egin nahi dugun ongi azaldu ondoren.

5. Kargadoreak kokatzeko puntu estrategikoak zein diren aztertu ondoren, ipini egingo ditugu kargadoreak. Kargadoreen kokalekua adosteko pare bat ingeniari izango ditugu, hauek Donostia hiriko kotxe elektrikoen erabilera aztertu beharko dute eta baita non dagoen erabilera handiena, ondoren nola ipini aztertu beharko dute. Kargadoreak ipintzeko bestalde, langile batzuk kontratatuko ditugu.
6. Azkenik, ordaintzeko aplikazioa eta enpresaren web orria sortuko ditugu bezeroekin harremanetan jartzeko eta gure zerbitzua promozionatuko dugu bezeroak erakartzeko.

Hau da, gure bezeroari balio-proposamena entregatuko diegu jarduerak dira kanal batzuen bidez eta harreman-mota zehatz batekin.